

ERMITABERRI IKASTETXEA BURLATA

**BERTSOLARITZA
IRAKASKUNTZAN
2012-2013**



0- SARRERA

Ikasturtearen amaierara ailegatu garelarik, Ermitaberri ikastetxean *Bertsolaritza Irakaskuntzan* programaren inguruan egin dugun esku hartzearen balorazioa eginen dugu.

Oro har programa arrakastatsua izan dela esan dezakegu.

Urriaren 3an hasi eta otsailaren 20an amaitu dugu ikastaroa. Astearte goizetan izan dira saioak eta seigarren mailako neska mutilak izan ditugu ikasle. Orotara 15 astez elkartu gara, lehenengo 14 saioetan bertsolaritza saio ohikoak izan ditugu eta azkenekoan Oskar Estanga bertsolariak ikasleentzat propio prestatutako emanaldia izan genuen.

Iazko ikastaroarekin alderatuta aldaketa garrantzitsu bat egon da. Orain arte ikasturte osoan lantzen bazuten bertsolaritza, saio kopurua 15era murriztu da eta honek ikastaroaren moldaketa bat ekarri du.

Materialari dagokionez, ikasleek aurten ez dute liburuxkarik izan. Bi arrazoi egon dira horretarako, batetik murrizketak eta bestetik gure programazioan egon diren aldaketa eta egokitzapenak. Hala ere irakaslearen erreferentziak *Gu ere Bertsotan* 1eko CD eta DVDa izan diira. Saio batzuetan *Gu ere Bertsotan* 2ko materiala ere erabili dugu. Liburuxkarik ez egoteak arbela digitalaren garrantzia biderkatu egin du. Landu dugun saio eta eduki bakoitza irakasleak, arbela digitalaren Smart programan prestatua eraman du ikasgelara. Hontaz gain arbela baliatuz ikus-entzunezkoak modu azkar batean ikusi, internetera sarbide azkarra edota arbelak dituen aukera guztiak eskura izan ditugu.

1- IKASTAROA

Asterik aste eta saio bakoitzerako bereziki prestatutako programazioarekin, bertsogintzaren oinarrizko teknika menperatu eta hainbat doinu ikasi dituzte ikasleek. Ahozotasuna jorratzea helburu izanik, euskara umorerako, eztabaidarako, sentimenduak adierazteko, komunikatzeko edota jolas egiteko erabiltzen ahalegindu gara.

Ahozotasuna modu ludikoan lantzeko ahalegina egin dugu, beti ere ikasleen motibazioa piztuko zuten jarduerak lehenetsiz. Aurtengo ikasturtean eginiko lanetatik ugari audioz grabatu eta ikasgelan entzun ditugu.

Bertsolaritzaren Curriculuma izan dugu aurten ere jardueren helburuak zehazterakoan erreferentzia filosofiko-teoriko nagusia. Honako hiru alorrei erreparatu diegu bereziki:

1- Hizkuntza: hizkuntza, eskolako gai hutsa baino gehiago dela sentitzea da bertsolaritzaren zeregin garrantzitsua. Unean uneko, hurbileko gai, egoera edo jarduerak baliatzen saiatu gara bertsotarako eta gisa horretan ikasleen motibazioa handitzeko.

Hizkuntzaren zuzentasunari baino erabilerari eman diogu lehentasuna. Ortografia akatsak beti zuzendu dira.

2- Bertsolaritza/bertsogintza: bertsolaritza kultur jarduera oso gisa definitzen dugu eta bertsogintza berriz sormen-ekoizpen gisa.

Urtetik urtera egoera hobea izanik ere, Iruñerrian eta Burlatan ere oraindik bertsolaritza ezagutarazi beharra dago. Ikasle gehienentzako haxe da bertsoarekiko lehen hurbilpena: doinuak, neurriak, errima, oinak, puntua, bertsolariak, bertso saioak, txapelketak...

Hortik abiatuta, ikasle bakoitzaren sormena bultzatzea da helburua, idatziz lehenik eta bat-batean ondoren. Gehien bat idatziz aritu gara nahiz eta bat-batean aritzeko ariketa ezberdinak ere gin ditugun.

3- Trebetasun sozialak: Curriculumean zenbait trebetasun sozial jasotzen ditugu. Horien artean honakoak nabarmenduko genituzke: jendearen aurrean aritzea (hizketan zein kantuan), norberak egindakoarekin ziur egotea, besteen lanak entzuten eta baloratzen ikastea eta taldean lan egitea. Helburu hori lortzeko bidean ikasgelan sortutako lan gehienak lagunen aurrean aurkeztu ditugu.

Asterik aste hau da aurtengo ikasturtean landu duguna:

- I. **Saioz-saio (liburuko unitatea, urriak 3):** sarrera unitatea. Lau bideo erabili ditugu bertsoekin lehen harremana erraztu eta bertsolaritzaz genituen ezagutzak elkarrekin konpartitzeko. Unitate honekin bertsolaritzaren gaineko txapel orokorra jarri genuen. Beraiek gauzak komentatu, egiten dituzten galderak erantzun eta gisa horretan kontzeptuak argitzen ditugun heinean konturatzen dira bertsolaritza beraien inguru edo ezagutzetatik uste baino hurbilago dagoen arloa dela.
- II. **Neure buruari (liburuko unitatea, urriak 10, 17, azaroak eta 14):** bertsoa osatzeko oinarriko osagaiak identifikatu eta barneratu ondoren, euren burua ikaskideen aitzinean aurkezteko koplak osatu dituzte.

Urriak 10: *Ama Begira zazu eta Ikusi nuenean* sortak abestu eta doinuak ikasi ondoren, neurriaren lanketari ekin genion.

Urriak 17: *AAA ardo gorri Nafarra* sorta kantatu eta errima landu genuen. Ondoren denon artean gai bat aukeratu eta taldetxotan bakoitzak bokal batekin bertsoa egin zuen. Denon bertsoak irakasleak etxean garbira pasa eta sorta osatua gelditu zen.

Azaroak 14: Aurreko egunean egindako bertso sorta grabatu eta hankaluze, hankamotz eta poto kontzeptuen lanketa. Bertso bat egiteko urratsen azalpenaren ondoren ikasle bakoitzak bere burua aurkezteko bertsoak egin zituen.

- III. **Ofizioka (azaroak 21):** bertsolaritzaren oinarri nagusietakoa den elkarrizketa osatzeko oinarriko elementuak landu eta besteen paperean jartzeko ariketa bat egin dugu. Andoni Egaña eta Jon Sarasuaren *Ai zapotxin* sorta landu ondoren, ikasleei guraso eta irakasleen paperean jartzea egokitu zaie. Bertsoak bukatu dituzten ikasleek lagunaren aurrean kantatu dituzte eta ondoren irakasleak bertso guztiak bildu eta etxean garbira pasa ditu.
- IV. **Elurra teilatuan (azaroak 28):** negua hurbiltzen ari zela ospatzeko elurra teilatuan kantua kantatu eta doinua ikasi genuen. Neguaren alderdi positibo eta gustagarriak identifikatu ondoren, bertsoan jarri genituen. Talde txotan bertsoak egin eta bakoitzak bukatzean bere bertsoa kantatu zuen. Irakasleak bertso guztiak bildu eta etxean garbira pasa zituen.
- V. **Ez dut gogoan lehen muxua (abenduak 5 eta 12):** klasea hasteko aurreko eguneko bertsoak denon artean abestu eta abestiaren oinarriaren laguntzaz grabatu genituen. Jarraian Maialen Arzallus

eta Miren Amurizak egin eta *Gu ere bertsoan* 2 liburuan agertzen diren bertsoak entzun eta aztertu genituen ikasgelan. Neurri handia landu eta bukaeraren garrantziaz jabetzeko erabili genituen bertsoak. Ondoren ikasle bakoitzak maite duen pertsona bati egin zion bertsoa. Bertsoa txukun jarri eta bertsoa egin zioten pertsona horri oparitu zioten gabonetan.

- VI. Bat-batekotasuna (abenduak 19):** saioa hasteko *Markosen Txerriaren* bertso sorta landu genuen. Ondoren arbelean ikasle bakoitzak bi oin jarri zituen. Jarraian oin horiekin ikasleek bertsoak egin zituzten. Ikasle batzuk bertsoak idatzi gabe egin zituzten. Aurreko egunetako ariketa bukatu ez zuten ikasleek lehenbizi hori bukatu zuten.
- VII. Bertso-rapa (urtarrilak 9 eta 16):** hip-hopak gaztetxoan artean duen erakarpena ikusiz, bertsoa eta hip-hop edo raparen artean dauden parekotasunak aztertu genituen. Ondoren taldetxo bakoitzak abestiaren gaia aukeratu, letra sortu eta oinarri musikal baten laguntzaz lagunen aurrean kantatu eta grabatu genituen.
- VIII. Bazen behin (liburuko unitatea, urtarrilak 23 eta 30):** zenbait bertso-ipuinen bertso ezberdinak kantatu eta aztertu ondoren, guztion artean gure bertso-ipuina sortu ditugu. Unitate honetan *Juana Bixenta Olabe* eta *Markosek egin eban* doinuak landu ditugu. Neurri honetan egin dituzte bertsoak eta ondoren doinuaren oinarriaren laguntzaz ipuina grabatu egin dugu.
- IX. Asmakizunak (otsailak 6):** Jon Maiaren *Treneko koplak* bertso sorta landu genuen eta aurreko urteetako ikasleek doinu horretan eginiko bertso-asmakizunak entzun ostean, ikasleak taldetxotan jarri eta beraien asmakizunak egin zituzten. Saioa bukatu aurretik eginiko asmakizunak kantatu genituen.
- X. Bertso saioa (otsailak 20):** Oskar Estanga bertsolariarekin bertso saio bat egin genuen ikasturteari amaiera borobila emateko. Ikastetxeko 4. eta 5. mailako ikasleek ere parte hartu zuten. Oskarrek ikasleentzat bereziki prestatutako ikuskizunaz gain, gela bakoitzeko ikasleek urtean zehar eginiko zenbait lan ere aurkeztu zituzten.

2- BALORAZIO OROKORRA

Ikasturtea primeran joan da. Bertsoak egiteko gutxieneko teknika eta edukiak barneratu dituzte eta taldeko lan giroa ere oso egokia izan da.

Ikasleek oro har lanerako jarrera ona erakutsi dute eta beraz, taldeen dinamika eta martxa ere egokiak izan dira hiru taldeetan. Ikasleak saio gehienetan motibatuta nabaritu ditut.

Tutoreen ekarpena eskertzekoa izan da, beti laguntzeko prest azaldu baitira.

Ikastetxeari ere aipamena egin nahi nioke. Gure lanaren izaerak zuzendaritza taldearekin harreman estuegia ez izatea dakar, hala ere zerbaiten beharra izan dudanean, laguntzeko jarrera erakutsi dute.

Programazioari dagokionez, aurtengo berrikuntza nagusia hip-hoparen lanketa izan da. Asko motibatu dira ikasleak eta aurrerantzean ere errepikatu beharko dugun jardura izanen da.

Aipatu ere kurtso amaierako saioaren formatua aldatu egin dugula. Orain artean bertso saioa ohiko formatuan (ikasleei zuzendua baina ohiko formatuan) antolatzen bagenuen, aurten aldatu egin dugu saioa. Oskar Estangak ikasleentzat bereziki prestatutako emanaldia izan zen eta hau ikasleek beraiek prestatutako lanekin osatu zenez, ikasleen oso gustukoa izan zen.

3- AURRERA BEGIRA

Bertsolaritza irakaskuntzan programak berebiziko garrantzia du gure esparrua indartzeko helburuan. Bertsolaritzaren transmisioa modu egoki eta erakargarrian egiteko oso garrantzitsua da programak bere bidea egiten jarrai dezan Ermitaberri ikastetxean.

Burlatan, bertsolaritzaren eragina murrizta da eta beraz programari esker ikasleek gure kulturaren zutabe garrantzitsua den bertsolaritza ezagutu eta lantzeko aukera paregabea eskaintzen zaie. Euskara modu ludiko batean sormen lanen bidez lantzeak ere duen balioa ukaezina da; Burlata bezalako gune erdaldunetan are gehiago.

Aurrerantzean ere espero dugu elkarlanean orain arteko bidetik edo bestelako aukerak jorratuz jarraitzea.

Iruñean, 2013ko ekainean

Xabier Terreros Gartzia, Nafarroako Bertsozale Elkarteko irakaslea